

aurreTIK

2006KO BIZKAIKO TEKNOLOGI BERRIKUNTZAREN INKESTA
ENCUESTA DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA DE BIZKAIA 2006

2008

Hau txosten zabalago baten laburpena baino ez da, web honetan eskura daitekeena.

versión reducida de un informe más amplio disponible en:

www.barrixe.com

:b:a:i:

berrikuntza
agencia de
innovación

**BFA
DFB**

Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila
Departamento de Innovación
y Promoción Económica



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO

2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

Metodologia

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2007ko azken hiruhilekoan egin zuen 2004-2006 aldiak jasotzen dituen Teknologia Berrikuntzaren 2006ko Inkesta. Txosten hau egiteko Inkestan jasotako Bizkaiko datuen taula aztertu eta landu da. Barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak berriaz eskatu dio Eustati informazio hau txosten honetarako.

Bizkaiko enpresa* berritzailearen erradiografia

*10 langile edo gehiagokoak *con 10 ó más trabajadores/as

Metodología

El Instituto Vasco de Estadística (Eustat) realizó la Encuesta de Innovación Tecnológica 2006, que abarca los años 2004 a 2006, a lo largo del último trimestre de 2007. El presente informe se basa en el análisis y explotación de las tablas de datos para Bizkaia de dicha Encuesta, la información ha sido obtenida ad-hoc para barrixe, el Observatorio de Innovación de Bizkaia.

Radiografía de la empresa* innovadora de bizkaia

	2004	2005	2006
Enpresa berritzaileak * Empresas innovadoras	30,1%	32,4%	30,5%
Teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte Han realizado actividades relacionadas con la innovación tecnológica	28,9%	29,0%	28,9%
Produktu berritzaileak sartu dituzten enpresak ** Empresas con actividades innovadoras	32,3%	34,4%	32,1%
Enpresarako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa	25,4%	19,1%	19,9%
Merkaturako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado	10,6%	7,8%	7,3%
Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que han introducido procesos innovadores	24,6%	26,3%	26,6%
Berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak Empresas que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación	13,4%	43,9%	45,4%
I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación	15,0%	21,8%	27,1%
Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte Han encontrado dificultades para realizar innovaciones	63,2%	63,3%	63,9%
Patenteak eta bestelako babes metodoak darabiltzate Uso de patentes y otros métodos de protección	11,2%	29,3%	22,4%
Bestelako aldaketak edo hobekuntzak egin dituzte estrategian eta antolakuntzan Han realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas	33,9%	36,0%	25,9%

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen % 32,1ek produktu berritzaileak sartu dituzte beren enpresetan 2006an, eta kopuru hau 2005ekoa baino 2,3 puntu txikiagoa da.

Un 32,1% de las empresas de 10 ó más trabajadores/as de Bizkaia hace innovación en 2006, el porcentaje es inferior en 2,3 puntos porcentuales al de 2005.

Enpresa berritzaileak: merkatuan edo bere establezimenduan produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo nabarmen hobetuak sartu dituztenak

Jarduera berritzaileak dituzten enpresak: merkatuan edo bere establezimenduan produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo nabarmen hobetuak sartu dituztenak, berrikuntzako jarduerak gauzatzeko ari direnak edota arrakastarik gabeko jarduerak gauzatu eta, beraz, merkaturatu ez dituztenak.

Enpresa Innovadora: aquellas que han introducido en el mercado o en su establecimiento un producto, servicio o proceso nuevo o sensiblemente mejorado.

Empresas con actividades innovadoras: aquellas que han introducido en el mercado o en su establecimiento un producto, servicio o proceso nuevo o sensiblemente mejorado, que tienen actividades sobre innovación en curso y/o que han resultado fallidas.

Teknologi berrikuntzarako jarduerak

Actividades para la innovación tecnológica


Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

Bizkaiko enpresen %28,9k teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte 2006. urtean, hau da, 2005. urteko ehuneko berdintsua erregistratu da.

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados.

Un 28,9% de las empresas de Bizkaia ha realizado en 2006 actividades relacionadas con la innovación tecnológica, un porcentaje similar al de 2005.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK ACTIVIDADES PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



Industria establezimenduen %33,3k eta zerbitzuen %31,6k hainbat jarduera burutu dituzte 2005. urtean teknologi berrikuntzak lortzeko.

Tamainak badu eragina berrikuntzan, izan ere, berrikuntza gutxien sortzen dituzten enpresak 10 eta 19 langile bitartekoak dira (%21,7).

Un 35,5% de los establecimientos industriales y un 24,5% de los de servicios ha llevado a cabo diversas actividades en 2006 con la finalidad de obtener innovaciones tecnológicas.

El tamaño es un factor que influye en la innovación, así, las empresas de entre 10 y 19 trabajadores/as (28,9%) y las de entre 20 y 49 (25,7%) son las que menos innovan.

Nork garatu ditu produktu horiek?

Produktu/zerbitzu berrikuntzarik gehienak enpresan bertan garatzen dira (% 39,1). Enpresaren beste establezimenduekin lankidetzan garatzen diren berrikuntzak, ordea, jaitzi egin dira (% 10,6). 2006an azpimarratzekoa da beste enpresa edo erakunde batzuek egindako produktu berrikuntza (%35,4). Kopuru honek nabarmen gora egin du aurreko urtearen aldean (% 12,5).

10 enplegatu edo gehiagoko industri enpresen ia bi herenek (% 66,1) produktu edo zerbitzu berrikuntzak barnean garatzen dituzte, eta portzentaje horrek 6,6 puntu egin du behera aurreko urtearen aldean. Zerbitzuen sektorean ere nagusiki establezimenduan bertan egiten dira produktu berrikuntzak (% 47,5), halere, pisu espezifiko handiagoa du beste enpresa batzuekiko lankidetzak (% 23,6) nahiz eta 2005ean baino 4,8 puntu txikiagoa izan. Enpresa beraren beste establezimendu batzuekiko lankidetzari dagokionez, 2005. urteko ehuneko berdintsua erregistratu da (%18,2).

20 eta 49 langile bitarteko enpresak dira produktu berrikuntzak barnean gehien garatzen dituztenak (% 71,4). Txikiagoak diren enpresek (10 eta 19 langile bitartekoek) kolaboratzen dute gutxien beste enpresa batzuekin produktua berritzeko (% 6,3) eta produktua berritzeko kanpoko baliabideak (beste enpresa edo erakunde batzuk) gehien erabiltzen dituztenak dira (% 72,0).

Nork garatu ditu prozesu horiek?

Prozesu berrikuntza gehiago garatzen dira beste enpresa edo erakunde batzuekin lankidetzan (% 50,3) enpresan bertan baino (% 32,6).

Prozesu berrikuntza sektoreka aztertzen badugu, industrian joera erabat aldatu dela ikusiko dugu. Horrela, enpresan bertan garatutako prozesu berrikuntza asko hazi da aurreko urtearen aldean (% 51,4). Alderantziz, aipatutako sektorean (% 16,8) nabarmen behera egin dute beste enpresa edo erakunde batzuek garatutako prozesu berrikuntzek (21 puntu).

50 eta 99 langile bitarteko enpresak dira establezimenduan bertan prozesu berrikuntza gehien burutzen dituztenak (% 49,0). Era berean, enpresa handienak (100 langile baino gehiagokoak) dira prozesu berrikuntzak sartzeko beste enpresa batzuen laguntza gehien bilatzen dutenak (% 31,6).

¿Quién ha desarrollado esos productos?

La mayor parte de las innovaciones de producto/servicio se desarrolla en las propias empresas (39,1%), perdiendo fuerza la cooperación con otros establecimientos de la empresa (10,6%). En 2006 cobra especial incidencia la innovación de producto realizada por otra empresa o institución (35,4%), dicho porcentaje ha aumentado de modo significativo con relación a un año antes cuando se situaba en un 12,5%.

Prácticamente dos tercios (66,1%) de las empresas industriales de 10 ó más empleados/as desarrollan en 2006 internamente las innovaciones de producto o servicio, dicho porcentaje se reduce 6,6 puntos porcentuales con respecto al año anterior. En el sector de servicios, aunque predomina también el desarrollo de nuevos productos en el propio establecimiento (47,5%), tiene un mayor peso específico, aunque 4,8 puntos inferior que en 2005, la cooperación con otras empresas (23,6%). La cooperación con otros establecimientos de la propia empresa (18,2%) permanece en niveles similares a 2005.

Las empresas de 20 a 49 empleados/as son las que más innovación de producto realizan en su establecimiento (71,4%). Las empresas de menor tamaño (de 10 a 19 trabajadores/as) son las que menos cooperan con otras empresas para innovar en producto (6,3%) y quienes más utilizan recursos externos (otras empresas o instituciones) para innovar en producto (72,0%).

¿Quién ha desarrollado estos procesos?


Las innovaciones de proceso se realizan en mayor medida en cooperación con otras empresas o instituciones (50,3%), que en el propio establecimiento (32,6%).

Si analizamos la innovación de proceso por sectores observamos un cambio de tendencia importante en la industria, así, el desarrollo en la propia empresa asciende considerablemente con respecto al año anterior (51,4%). Por el contrario, las innovaciones de proceso realizadas por otras empresas o instituciones disminuyen apreciablemente (21 puntos porcentuales) en dicho sector (16,8%).

Las empresas de 50 a 99 empleados/as (49,0%) son las que más innovaciones de proceso en el propio establecimiento realizan. Al mismo tiempo, las empresas de más tamaño (superior a 100 trabajadores/as) son las que más se apoyan en otras empresas para introducir innovaciones en los procesos (31,6%).

NORK GARATZEN DITU BERRIKUNTZAK? ¿QUIÉN DESARROLLA LAS INNOVACIONES?


■ PROZESUA DE PROCESO ■ PRODUKTUA DE PRODUCTO



Enpresa berritzaileak

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen, hots, enpresa berritzaileen ehunekoa 2006. urtean %30,5ekoa izan da eta aurreko urtekoa baino 1,9 puntu baxuagoa da.

Industriaren sektorean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen kopurua are handiagoa da, alegia, %35,8koa (2005eko kopurua baino 3,3 puntu baxuagoa). Zerbitzuen sektoreak jaitsiera handia izan du eta batez bestekoaren azpitik kokatzen da (% 27,3). Aitzitik, eraikuntza sektoreko 10 langile edo gehiagoko enpresen egoera nabarmen hobetu da 2005eko datuekin alderatuta.



Bizkaian enpresaren tamainak badu eragina berrikuntzarako gaitasunean, hartara, bi segmentu nabarmen desberdin agertzen zaizkigu, alde batetik, 10 eta 49 langile bitarteko enpresetan berrikuntza tasak ez dira batez bestekora iristen, eta bestetik, 50 langile eta gehiago dituzten Bizkaiko enpresen %40k baino gehiagok berrikuntzak sortzen dituzte produktuan edota prozesuan.

Berrikuntzaren finantzazio publikoa

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %45,4k laguntza finantzario publikoa jasotzen du, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2005. urtekoa baino 1,5 puntu handiagoa da. Finantzazio horren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak (% 35,8) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (% 13,7) emandakoa da.

Berrikuntza arloan bizitasun gutxien duena izaki, eraikuntza sektorea izan da laguntza finantzario publiko gutxien lortu duena bere berrikuntza jardueretarako. Aitzitik, zerbitzuen (% 53,6) eta industriaren (% 50,5) sektoreek Bizkaiko batez bestekoa gainditu dute.

Laguntza publikorik gehien 50 eta 99 langile bitarteko enpresek jasotzen dute (%66,8) eta ondoren 100 eta gehiagokoen (% 57,1).

Empresas innovadoras

El porcentaje de empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as que han introducido productos y/o procesos innovadores, es decir, empresas innovadoras, en 2006 alcanza un 30,5%, y es inferior en 1,9 puntos al correspondiente a un año antes.

El porcentaje de empresas innovadoras de 10 ó más empleados/as del sector industrial es todavía más elevado, alcanzando una tasa del 35,8% (3,3 puntos inferior a la cifra de 2005). El sector de servicios acusa un fuerte descenso y se sitúa por debajo de la media general (27,3%). Por el contrario, las empresas del sector de la construcción de 10 ó más empleados/as mejoran notablemente su situación con relación al año 2005.

El tamaño de empresa influye en la capacidad de innovación, así, observamos que se producen dos segmentos claramente diferenciados, por un lado, las empresas de 10 a 49 trabajadores/as con tasas de innovación que no alcanzan la media general, y por otro, las de 50 ó más, en este segundo grupo más de un 40% de las empresas de Bizkaia innova en producto y/o proceso.

Financiación pública de la innovación

Un 45,4% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que hace innovación recibe apoyo financiero público, ya sea en forma de préstamos o subvenciones, dicho porcentaje se sitúa 1,5 puntos por encima de su equivalente en 2005. La mayor parte de dicha financiación proviene del Gobierno Vasco (35,8%) y de la Diputación Foral de Bizkaia (13,7%).

El sector de la Construcción, el menos activo en materia de innovación, es el que menos financiación pública ha conseguido para sus actividades de innovación. Por el contrario, tanto el sector de servicios (53,6%) como la industria (50,5%) presentan porcentajes que superan la media del conjunto de Bizkaia.

Las empresas que tienen entre 50 y 99 trabajadores/as son las que reciben mayor apoyo público (66,8%), seguidas por las que tienen 100 ó más (57,1%).

Beste aldaketa batzuk estrategian eta antolakuntzan

Produktu (ondasun zein zerbitzu) eta prozesu berrikuntzak ez ezik, enpresek bestelako aldaketa eta hobekuntza batzuk ere egin ditzakete estrategian eta antolakuntzan. Bizkaiko enpresen % 25,9k horrelako aldaketaren bat egin dute 2006ko ekitaldian. Ehuneko hori aurreko urtekoa baino 10,1 puntu baxuagoa da.

Sektoreka, 2006an estrategian edo antolakuntzan aldaketak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko industriak % 30,0 dira. Ehuneko hau 2005ekoaren antzekoa da. %18,1ek antolakuntzan aldaketak egin dituzte eta %16,8k produktuen diseinua aldatu dute.

Aurreko urtean bezalaxe, eraikuntza sektorea da horrelako aldaketa gutxien egin dituen.

Zerbitzuen sektoreak egiten dituen aldaketa gehienak antolakuntza berriak abian jartzeko egiten ditu (% 20,0) baita kudeaketarako teknika aurreratuak erabiltzeko ere (% 17,5). Aurreko urtean baino 7,4 eta 9,4 puntu gutxiago erregistratu dira hurrenez hurren.

Enplegu mailaren arabera aztertuz gero, ageri da, beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, horrelako strategiak abiarazteak nolabaiteko lotura duela enpresen tamainarekin. Enpresa handienak (100 langile baino gehiagokoak) eta 50 eta 99 langile bitarteko enpresak dira horrelako aldaketa gehien egin dituztenak (% 47,1 eta % 40,1 hurrenez hurren).

Otros cambios estratégicos y organizativos

Las empresas, además de las innovaciones en productos (bienes y servicios) y procesos, pueden haber realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas. Un 25,9% de las empresas de Bizkaia ha realizado alguno de estos cambios en el 2006, dicho porcentaje disminuye en 10,1 puntos con respecto al período anterior.


En el plano sectorial un 30,0% de las industrias de 10 ó más trabajadores/as ha llevado a cabo cambios estratégicos u organizativos en el 2006, situándose en niveles similares a los del 2005. Un 18,1% ha llevado a cabo cambios organizativos y un 16,8% ha modificado el diseño de sus productos.

Al igual que en el período anterior, el sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios.

El sector de servicios centra los cambios en la puesta en marcha de nuevas estructuras organizativas (20,0%) y en el uso de técnicas de gestión avanzadas (17,5%). Además y respectivamente, con una disminución de 7,4 y 9,4 puntos con respecto al período anterior.

El análisis por estrato de empleo muestra que, al igual que sucede con otras variables, la puesta en práctica de este tipo de estrategias viene ligada, en cierto modo, al tamaño de las empresas. Así, son las empresas de más dimensión (con plantilla superior a 100 personas) y las que tienen entre 50 y 99 trabajadores/as las que más han aplicado este tipo de cambios (47,1% y 40,1% respectivamente).

BESTE ALDAKETA BATZUK ESTRATEGIAN ETA ANTOLAKUNTZAN OTROS CAMBIOS ESTRATÉGICOS Y ORGANIZATIVOS



Produktu berrien eragin ekonomikoa enpresarentzat

2006an merkaturatu diren enpresarako produktu edo zerbitzu berriei dagokie 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen negozio-zifraren %19,9. Portzentaje hau 2005ekoaren antzekoa da (% 19,1).

Berrikuntza horiek eragin handiagoa dute zerbitzu sektoreko emaitzen kontuan (% 30,4) industria sektorekoen kontuan baino (% 26,0).

Fakturazioan, enpresa handienak (100 langile eta gehiagokoak) dira berrikuntza horietatik errendimendu gehien ateratzen dutenak, izan ere, haien iritziz, beren negozio-zifraren % 29,2 produktu/zerbitzu berri horiei esker lortu dute.

Produktu berrien eragin ekonomikoa merkatuarentzat

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan 2006. urteko negozio-zifraren % 7,3 produktu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak sartzearen ondoriozkoa da (establezimenduarentzat ez ezik, bere merkatuarentzat ere berriak). Kopuru hau aurreko urtekoa baino 0,5 puntu baxuagoa da.

Zerbitzuen sektoreko enpresak (%11,1) dira produktu berriak merkaturatzeagatik fakturazio portzentajerik handiena dutenak. Industriaren sektoreak hurbiletik jarraitzen dio % 9,8rekin.

Enpresak tamainaren arabera aztertuz gero, ageri da 20 eta 49 langile bitarteko enpresek lortu dutela 2006. urteko negozio-zifraren portzentajerik handiena merkaturako produktu berriei esker (% 13,7).

Impacto económico de los productos nuevos para la empresa

Un 19,9% de la cifra de negocio de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as es atribuible a productos/servicios nuevos para la empresa introducidos en el mercado a lo largo del 2006. Este porcentaje es similar al del 2005 (19,1%).

El impacto en la cuenta de resultados de estas innovaciones es superior en el sector servicios (30,4%) que en el industrial (26,0%).

Son las grandes empresas (de 100 ó más trabajadores/as) las que más rendimiento en términos de facturación obtienen de estas innovaciones, éstas atribuyen un considerable 29,2% de su cifra de negocio a sus nuevos productos/servicios.

Impacto económico de los productos nuevos para el mercado

Un 7,3% de la cifra de negocio en 2006 de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as ha venido originado por la introducción de productos o servicios nuevos o sensiblemente mejorados (no sólo nuevos para su establecimiento, sino también para el mercado en el que operan). Dicha cifra es inferior en 0,5 puntos a la equivalente de un año antes (2005).

Las empresas del sector servicios (11,1%) son las que presentan un mayor porcentaje de facturación por la introducción de nuevos productos para el mercado. En una posición cercana se sitúa el sector industrial (9,8%).

En el análisis en función del tamaño de la empresa, se puede observar que las empresas de 20 a 49 trabajadores/as, son las que presentan mayor porcentaje de la cifra de negocio de 2006 atribuible a productos novedosos para el mercado (13,7%).

Lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak


Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntzak sortzen dituzten enpresen % 27,1ek lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin I+G jardueren inguruan 2006. ekitaldian. Portzentaje hori 2005ekoa baino 5,3 puntu handiagoa da.

Establecimientos con acuerdos de cooperación

Un 27,1% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que innova ha firmado acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación con otras empresas o Instituciones en el horizonte temporal 2006. Dicho porcentaje se sitúa 5,3 puntos por encima del 2005.

LANKIDETZA HITZARMENAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK

ESTABLECIMIENTOS CON ACUERDOS DE COOPERACIÓN



Industri enpresa berritzaileek (%33,2) lankidetza hitzarmen gehiago izenpetzen dituzte zerbitzu enpresek baino (% 30,3).

Enplegu mailari erreparatuz gero, lankidetza hitzarmenen kopurua enpresen tamainaren arabera izaten da. Hartara, enpresarik handienetan (100 langile edo gehiagokoetan) I+G eta berrikuntza jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak % 51,7 dira, eta portzentaje hori % 13,2raino jaisten da enpresa txikienetan.

Las empresas innovadoras industriales (33,2%) suscriben más acuerdos de cooperación que las de servicios (30,3%).

En el análisis por estrato de empleo, el número de acuerdos de cooperación tiene una correlación positiva con el tamaño de las empresas. Así, un 51,7% de las empresas más grandes (con más de 100 trabajadores/as) y que innova, suscribe acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación, porcentaje que va disminuyendo hasta el 13,2% para las empresas más pequeñas.

Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua

Gasto medio para la innovación tecnológica

Berrikuntzak sortzen dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek barneko I+G jardueretarako erabiltzen dute baliabiderik gehien, eta horren ondoren makineria eskuratzeko. 2006ko datuekin alderatuta, % 19,4ko eta % 15,9ko hazkundea erregistratu da adierazle batean eta bestean. Hazkunderik nabarmenena izan duen jarduera produktu berritzaileen merkaturatzea izan da, izan ere, % 50,1 hazi da 2005eko kopuruarekin alderatuta.

Industri enpresak dira makineria eskuratzeko berrikuntza baliabide gehien erabiltzen dituztenak. Zerbitzuen sektoreak, ordea, barneko I+G-ko erabiltzen du baliabiderik gehien.

Enplegu mailaren arabera azterketa bat eginez gero, tamainaren eta baliabideen logika dela eta, ageri da 100 langile eta gehiago dituzten enpresen batez besteko inbertsioa askoz ere handiagoa dela gainerako segmentuetan baino.

La I+D interna es la actividad a la que dedican más recursos las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que innovan, seguida de la adquisición de maquinaria, ambas muestran un incremento en 2006 del 19,4% y 15,9% respectivamente. El crecimiento más llamativo tiene lugar en la comercialización de productos innovadores ya que aumenta un 50,1% con relación a la cifra de 2005.

El sector industrial es, con diferencia, quien más recursos de innovación a la adquisición de maquinaria. El sector de servicios concentra sus recursos en la I+D interna.

En un análisis por estrato de empleo se puede observar que, por lógica de dimensión y disponibilidad de recursos, las empresas con plantilla superior a 100 empleados/as, muestran una inversión media significativamente superior a la del resto de segmentos.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO BATEZ BESTEKO GASTUA JARDUERA ADARRAREN ARABERA GASTO MEDIO PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA POR RAMA DE ACTIVIDAD

euro	Guztira Total		Industria Industria		Eraikuntza Construcción		Zerbitzuak Servicios	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Barneko I+G I+D Interna	56.353	67.277	73.128	92.097	1.807	1.707	62.086	71.583
Kanpoko I+G I+D Externa	15.477	10.730	40.158	27.357	1.405	365	8.175	6.131
Makineria eskuratzeko Adquisición de Maquinaria	31.091	36.025	84.678	88.282	1.351	35.710	15.042	14.378
Kanpoko beste jakintza batzuk (1) Otros conocimientos externos (1)	7.550	5.886	5.809	16.877	87	1.049	10.076	2.397
Pertsonal berritzailearen prestakuntza Formación al personal innovador	2.157	1.531	2.086	2.392	143	313	2.667	1.445
Produktu berritzaileak merkaturatzea (2) Comercialización de productos innovadores (2)	2.148	3.225	1.666	2.659	0	0	2.867	4.179
Berrikuntzak inplementatzeko diseinua eta prestaketak Diseño y preparativos para la implementación de innovaciones	2.996	1.679	2.081	3.220	1.184	13	3.822	1.411

(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea
(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak

(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.
(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones

Teknologi berrikuntza mota

Bizkaiko enpresek produktuan (%14,6) baino prozesuan (%26,6) berrikuntza gehiago sortzen dute.

Bizkaiko ekoizpen sektore guztiek joera nagusiari jarraitzen diote, izan ere, denek sortzen dute berrikuntza gehiago prozesuan produktuan baino. Hala ere, eraikuntza sektorean ezberdintasun txiki bat antzematen da. Produktuan eta prozesuan berrikuntza gehien egin dituen eraikuntza izan da (%32,7 eta % 34,9 hurrenez hurren). Ondoren industria sektorea kokatzen da % 18,8 eta % 25,5eko ehunekoekin hurrenez hurren.


Prozesu berrikuntza enplegu maila guztietan gailentzen da, baina 50 langile eta gehiago dituzten enpresetan nabarmenagoa da.

Tipo de innovación tecnológica

Las empresas de Bizkaia innovan más en proceso (26,6%) que en producto (14,6%).

Todos los sectores productivos de Bizkaia siguen la tónica general, innovando más en proceso que en producto, si bien en el caso de la construcción con una ligera diferencia. El mayor porcentaje de innovación tanto en producto como en proceso lo lleva a cabo la construcción (32,7% y 34,9% respectivamente) seguido por la industria con un 18,8% y 25,5% respectivamente.

La innovación de proceso predomina para todos los estratos de empleo, si bien, de manera más acusada en las empresas con plantilla de 50 ó más personas.



Berrikuntza eragozten duten faktoreak


10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen % 63,9k eragozpenen bat aurkitu dute 2006. urtean berrikuntza jardueran, hots, 2005eko (% 63,3) ia portzentaje bera erregistratu da.

Sektoreka eta enpresen tamaina aztertuta, industria sektoreak (% 79,8) eta 50 eta 99 langile bitarteko enpresek aurkitzen dute eragozpen gehien (% 80,9), eta sarritan eragozpen hauek berrikuntzaren kostu handien eta gehiegizko arrisku ekonomikoen ondoriozkoak izaten dira. Gainera, enpresek uste dute finantziario iturri egokiak falta zaizkiela.

Factores que dificultan la innovación

Un 63,9% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia ha encontrado en 2006 algún tipo de dificultad en su actividad de innovación, un porcentaje prácticamente idéntico al del año 2005 (63,3%).

En el análisis sectorial y por tamaño de empresa, observamos que la industria (79,8%) y las empresas de 50 a 99 trabajadores/as (80,9%) son las que más dificultades encuentran, especialmente originadas porque los riesgos económicos les parecen excesivos, elevados los costes de innovación y consideran que les faltan fuentes de financiación apropiadas.



Patenteak eta bestelako babes metodoak

2006an, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen % 22,4k patenteren bat eskatu dute, patenteren bat indarrean zuten edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoen bat erabili dute. Ehuneko hori 2005ekoa baino 6,9 puntu baxuagoa da.

Bizkaiko industria eta eraikuntza enpresak dira adierazle hori jaitzarazi dutenak. Zerbitzuen sektoreak 2005eko antzeko datuak lortu ditu.

Industriaren sektoreak burutzen ditu horrelako jarduera gehien, % 27,6 hain zuzen ere. Orpoz orpo dabilkio zerbitzuen sektorea (% 25,7). 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko industrien %12,8k patenteren bat zuten indarrean 2006. urtearen amaieran, hots, 2005ean baino 0,6 puntu gehiago erregistratu dira.

Enpresa handien (100 langile edo gehiagokoak) % 47,4k patenteren bat eskatu dute 2006ko ekitaldian, patenteren bat indarrean zuten 2006. urtearen amaieran edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoen bat erabili dute aldi horretan.

Patentes y otros métodos de protección


En el 2006, un 22,4% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores/as ha solicitado alguna patente, tenía alguna patente en vigor o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones. Este porcentaje es 6,9 puntos porcentuales inferior a la tasa correspondiente al 2005.

Las empresas industriales Bizkaia y las de la construcción, son quienes contribuyen al descenso del indicador. El sector servicios permanece en niveles parecidos a 2005.

La industria, con un 27,6%, es el sector más activo, seguido de cerca por el sector de servicios (25,7%). Un 12,8% de las industrias de Bizkaia de 10 ó más trabajadores/as tenía algún tipo de patente en vigor a finales de 2006, lo que supone un incremento de 0,6 puntos con relación al año 2005.

Un 47,4% de las empresas de mayor tamaño (más de 100 trabajadores/as) ha solicitado alguna patente en el 2006, tenía alguna patente en vigor a finales de 2006 o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones en ese período.

PATENTEEN ETA BESTELAKO BABES METODOEN ERABILERA USO DE PATENTES Y OTROS MÉTODOS DE PROTECCIÓN



<http://www.barrixe.com>

gure web
nuestra web



bizkaiko berrikuntza behatokia observatorio de la innovación de bizkaia

Tanto el Aurretik, así como su versión ampliada está disponible en la web barrixe-Observatorio de la innovación de Bizkaia.

Últimas novedades incorporadas:

- Sección de licitaciones públicas en materia de innovación
- Nuevo sector productivo: Alimentación

Así mismo, podrá encontrar:

Los resultados del último estudio de mercado sobre la innovación en Bizkaia
Información sobre la participación de barrixe en redes europeas

Bai Aurretik eta bai beronen bertsio hedatua ere barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokian aurki ditzakezu

Azken berritasunak:

- *Berrikuntzari buruzko lizitazio publikoen sekzioa*
- *Produktzio sektore berria: elikadura*

Horrez gain, honako hauek ere aurkituko dituzu:

*Bizkaiko berrikuntzari buruzko azken merkatu ikerketaren emaitzak
Barrixek Europako sareetan izan duen partaidetzari buruzko informazioa*



bizkaiko berrikuntza
behatokia
observatorio de la innovación
de bizkaia

:b:a:i:

berrikuntza agentzia
agencia de innovación



Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Sala
Departamento de Innovación
y Promoción Económica



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO

> www.bai.bizkaia.net <

> www.berrikuntza.bizkaia.net <

> www.camarabilbao.com <

